



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko ekainaren 10a

84. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

- Foru Lege proposamena, irakasleen autoritateari buruzkoa. Ana María Beltrán Villalba andreak aurkeztu du (5. or.).
- Foru Lege proposamena, Kontu Irekiei buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epea (8. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Jabeldura, Espainiako Gobernuaren behin-behinekotasunak Nafarroako Gobernuaren jardura politikoan dituen ondorioei buruzkoa. Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak aurkeztu du (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da urgentziaz egin dezan jarduketa-plan bat, N-121-A errepideko tarte arriskutsuetan bide-segurtasuna hobetzeko neurriak bilduko dituen. Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztu du (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako irakaskuntza itunduko irakasleen eta irakasle ez diren langileen soldata % 1 igo dezan. Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztu du (11. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere samina agertzen baitu Mohamed Abdelaziz-en heriotzagatik, eta haren familiari eta Saharako herri osoari bere elkertasuna eta estimua adierazten baitizkie. Eledunen Batzarrak onetsia (12. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, langabeziaren aurkako talka-planari buruzkoa. Ainhoa Unzu Gárate andreak egin du (13. or.).
- Galdera, Nafarroako Foru Komunitateko enpresen eta pertsona ekintzaileen administrazio-zamen eta -soiltzeen urtealdi-zerrenda bat diseinatu eta prestatzeari buruzkoa. Ainhoa Unzu Gárate andreak egin du (13. or.).
- Galdera, Enplegu Planari buruzkoa. Ainhoa Unzu Gárate andreak egin du (14. or.).

- Galdera, langabezian dauden pertsonen duten eskubideari buruzkoa, egoki laneratu daitezkeen lortzeko lanbide-orientazio pertsonalizatua jasotzekoa. Ainhoa Unzu Gárate andreak egin du (15. or.).
- Galdera, enpresek eskatzen dituzten egungo eta etorkizuneko prestakuntza beharriari buruzkoa. Ainhoa Unzu Gárate andreak egin du (15. or.).
- Galdera, I+G+b arloko inbertsio publikoari, mapa teknologikoa prestatzeari eta enpresa berritzaileak ezartzeko eta garatzeko Planari buruzkoa. Ainhoa Unzu Gárate andreak egin du (16. or.).
- Galdera, Lan Autonomoaren Nafarroako Plan Estrategikoari buruzkoa. Ainhoa Unzu Gárate andreak egin du (16. or.).
- Galdera, 276/2007 Errege Dekretuak C1 hizkuntza-maila esleituta duten lanpostuak deitzeko planteatzen dituen zailtasunak konpontze aldera Hezkuntza Ministerioarekin egindako bilereari buruzkoa. Carlos Gimeno Gurpegui jaunak egin du (17. or.).
- Galdera, titulartasun publikoko ikastetxeetan hizkuntza-eredu ezberdinen elkarbizitzarako instrumentaltzaturiko prozedurei buruzkoa. Carlos Gimeno Gurpegui jaunak egin du (17. or.).
- Galdera, landa eremuko eskolak mantentzeko hartu diren neurriei buruzkoa. Carlos Gimeno Gurpegui jaunak egin du (18. or.).
- Galdera, ikastetxeen eraikuntza-proiektuetan instrumentaltzaturiko prozedurei buruzkoa, beren hezkuntza-eskaintzan hizkuntza-eredu guztiak eskaini ahal izateko. Carlos Gimeno Gurpegui jaunak egin du (18. or.).
- Galdera, hizkuntza-eredu ezberdinak dituzten titulartasun publikoko ikastetxeetako ikasleek Bizikidetasun eta Elkarlan Plan bat izan dezaten Hezkuntza Departamentuak egin beharreko jarduketei buruzkoa. Carlos Gimeno Gurpegui jaunak egin du (19. or.).
- Galdera, Nafarroako hezkuntza-sisteman hezkidetzarako eta genero indarkeriaren prebentziorako plan bat prestatzeari buruzkoa. Carlos Gimeno Gurpegui jaunak egin du (19. or.).
- Galdera, autismoaren esparruko nahastea duten pertsonen arreta emateari buruzkoa. María Victoria Chivite Navascués andreak egin du (20. or.).
- Galdera, farmazia-koordaintetari buruzkoa. María Victoria Chivite Navascués andreak egin du (20. or.).
- Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko erizaintzako langileen babes juridikoari buruzkoa. María Victoria Chivite Navascués andreak egin du (21. or.).
- Galdera, hainbat autonomia erkidegok Espainiako Gobernuari genero-indarkeriaren aurkako akordio sozial, politiko eta instituzional handia lortzeko egin dioten eskaerari buruzkoa. Nuria Medina Santos andreak egin du (21. or.).
- Galdera, egin diren urratsei buruzkoa, gobernu zentralari exijitzeko ezar dezaten emakumeak sexu-merkataritzarako erosten dituzten gizonak zigortuko dituen araudia. Nuria Medina Santos andreak egin du (22. or.).
- Galdera, pertsona transexualak genero-nortasunagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko 12/2009 Legearen arau-garapenari buruzkoa. Nuria Medina Santos andreak egin du (22. or.).
- Galdera, Emakumeen eta Gizonen arteko Lan-berdintasunerako Planari buruzkoa. Nuria Medina Santos andreak egin du (23. or.).
- Galdera, LGTBI+fobiaren aurka borrokatzeko Foru Lege bat prestatzeari buruzkoa. María Victoria Chivite Navascués andreak egin du (23. or.).
- Galdera, LGTBI+ elkartearen Nafarroako Kontseilua sortzeari buruzkoa. Nuria Medina Santos andreak egin du (24. or.).
- Galdera, beren bizibidea utzi nahi duten prostituentzako zerbitzuak eta funtsak eskaintzeko Oinarritzko Gizarte Zerbitzuek instrumentaltzaturiko prozedurei buruzkoa. Nuria Medina Santos andreak egin du (24. or.).
- Galdera, prostituzioa genero-indarkeriaren eta emakumeen sexu-esplotazioaren baliokide dela dioten sensibilizazio-kanpainak gauzatzeari buruzkoa. Nuria Medina Santos andreak egin du (25. or.).
- Galdera, Nafarroako Parlamentuak egin duen eskaerari buruzkoa, administrazio publikoek ez baliatzea, publizitate instituzionala egiteko, prostituzio-iragarkiak dituen inolako hedabiderik. Nuria Medina Santos andreak egin du (25. or.).
- Galdera, tolerantzia eta bazterkeria-eza bermatze aldera familia-, sexu- eta genero- bestelakotasunarekiko errespetua sustatzeari buruzkoa. Nuria Medina Santos andreak egin du (26. or.).
- Galdera, emakumeen eta pertsonen trafikoari eta proxenetek jazartzeko kanpaina bereziren bat abiarazteari buruzkoa. Nuria Medina Santos andreak egin du (26. or.).

- Galdera, jakitekoa Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuak ea zer jarduketa egin duen Nafarroako Gobernuaren mendeko erakunde, departamentu eta instituzio guztietan behar den informazioa egon dadin genero-indarkeriaren edozein biktimarentzat erabilgarri dauden baliabideei buruz. Nuria Medina Santos andreak egin du (27. or.).
- Galdera, emakumeen kontrako diskriminazio eta indarkeriaren gaitzespen soziala sustatzeko eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde egiteko sentsibilizaziorako aldizkako kanpaina instituzionalak egiteari buruzkoa. Nuria Medina Santos andreak egin du (27. or.).
- Galdera, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako baliabide teknikoei eta giza baliabideei buruzkoa. Nuria Medina Santos andreak egin du (28. or.).
- Galdera, gutxieneko taldeak zehazteko finantzaketa sistema eta populazio tarreak berrikusteari buruzkoa. Nuria Medina Santos andreak egin du (29. or.).
- Galdera, estimulazio kognitiboko, lanbide terapiako eta osasunaren sustapeneko zerbitzu anbulatorioei buruzkoa. Nuria Medina Santos andreak egin du (29. or.).
- Galdera, mendekotasuna edo desgaitasuna duten pertsonen senitartekoei eta zaintzaileei laguntzeko programei buruzkoa. Nuria Medina Santos andreak egin du (30. or.).
- Galdera, premia-premiazko elikagaiak eta produktu freskoak eskuratzeko “ticket sozial” bat abiarazteko azterlanari buruzkoa. Nuria Medina Santos andreak egin du (30. or.).
- Galdera, autonomia-mailako legeek Nafarroan desgaitasuna duten pertsonengan duten eraginaren gaineko azterlanari buruzkoa. Nuria Medina Santos andreak egin du (31. or.).
- Galdera, toki entitateek 2016an langabeak kontratatuzeko Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren enplegu deialdian ezarri den aurrekontuari buruzkoa. Maribel García Malo andreak egin du (31. or.).
- Galdera, emergentzia sozialeko 2015eko laguntzei lotutako emergentzia egoeraren balorazioari buruzkoa. Maribel García Malo andreak egin du (32. or.).
- Galdera, emergentzia sozialeko 2015eko laguntzei lotutako C.3, D.1 eta E.1 azpikategorien laguntzetan sartzen diren kontzeptuei buruzkoa. Maribel García Malo andreak egin du (32. or.).
- Galdera, emergentzia sozialeko laguntzen eskatzaileen egoera ekonomikoa egiaztatzeari buruzkoa. Maribel García Malo andreak egin du (33. or.).
- Galdera, emergentzia sozialeko 2015eko laguntzei dagokienez itxi eta likidatu diren espedientei buruzkoa. Maribel García Malo andreak egin du (34. or.).
- Galdera, emergentzia sozialeko laguntzak ebaluatuzeko txostenaren 19. orrian adierazi diren datuei buruzkoa. Maribel García Malo andreak egin du (34. or.).
- Galdera, emergentzia sozialeko 2015eko laguntzen onuradunak izan diren pertsonen eta familia-unitatei buruzkoa. Maribel García Malo andreak egin du (35. or.).
- Galdera, babestutako enplegu sozialerako 2015eko diru-laguntzei buruzkoa. Maribel García Malo andreak egin du (35. or.).
- Galdera, Zuzeneko Enplegu Aktiborako 2015eko diru-laguntzei buruzkoa. Maribel García Malo andreak egin du (36. or.).
- Galdera, Toki entitateek 2016an langabeak kontratatuzeko asmoz Nafarroako Enplegu Zerbitzuak egin duen enplegu-deialdiaren emaitzei buruzkoa. Maribel García Malo andreak egin du (37. or.).
- Galdera, gizarteratzeko eta laneratzeko errentaren kudeaketa-sistemen hobekuntzari buruzkoa. Maribel García Malo andreak egin du (37. or.).
- Galdera, Ezgaitasunaren Arreta Integralerako Las Hayas zentroari buruzkoa. Maribel García Malo andreak egin du (38. or.).
- Galdera, “Enplegu plana. Prestakuntzako eta enpleguko 2015eko programa mistoak” izeneko kontusailaren aurrekontuaren betetze-mailari buruzkoa. Maribel García Malo andreak egin du (39. or.).
- Galdera, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren eta eragile sozialen eta GKE-en arteko hitzarmenen kudeaketan helburu eta ildo estrategikoak ezartzeari buruzkoa. Maribel García Malo andreak egin du (39. or.).
- Galdera, enplegu agentziek hitzarmenen bidez egiten diren programetako parte-hartzaileak hautatzeari eta bideratzeari buruzkoa. Maribel García Malo andreak egin du (40. or.).
- Galdera, eragile sozialekiko eta GKE-ekiko hitzarmenen kudeaketa-eredua ezartzeko hartu diren neurri zehatzei buruzkoa. Maribel García Malo andreak egin du (41. or.).
- Galdera, Gazteen Bermearen 2015eko Sisteman inskribatuta dauden gazte langabeak kontratatuzeko toki entitateentzako laguntzei buruzkoa. Maribel García Malo andreak egin du (41. or.).

- Galdera, Iruñeko katedraleko klaustroa zaharberritzeko sinatu den hitzarmenari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (42. or.).
- Galdera, jakitekoa ea zertan den Eliza Katolikoak eginiko immatrikulazioak direla-eta Parlamentuko Osoko Bilkurak onetsitako erabakiaren betetzea. Laura Pérez Ruano andreak egin du (43. or.).
- Galdera, “410001 41800 6020 325100 - Ikastetxe berrien eraikuntza”, “410001 41800 7609 325103 - Ikastetxe berrien eraikuntza” eta “4110001 41210 4812 322304 - Prestakuntza Planerako Laguntzak” kontusailei buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (44. or.).

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

## **Foru Lege proposamena, irakasleen autoritateari buruzkoa.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 6an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Ana María Beltrán Villalba andreak irakasleen autoritateari buruzko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

### **ERABAKIA:**

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin irakasleen autoritateari buruzko Foru Lege proposamena.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2016ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **Irakasleen autoritateari buruzko Foru Lege proposamena**

#### **ZIOEN AZALPENA**

Espainiako Konstituzioak, 27. artikuluan, hezkuntzarako oinarrizko eskubidea aitortzen du. Eskubide horren bermeetako bat, bai esparru akademikoan, bai diziplinakoan, irakasleen autoritatea da, eta horrekin hezkuntza erkidego osoaren eskubideak segurtatzen dira. Irakasleen autoritatea irakaskuntza-eginkizunari eta eginkizun hori betetzeko erantzukizunari datzekien alderdia da, eta halakotzat aitortu beharra dago.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak 104.1 artikuluan aipatzen du hezkuntza-administrazioak arduratuko direla irakasleek jaso dezaten beren eginkizunaren garrantzi soziala dela-eta merezi dituzten tratua, begirune

eta errespetua; 2. idatz-zatian ezartzen du lehentasunezko arreta eskainiko diotela irakasleen lan-baldintzak hobetzeari eta gizarteak irakaslana gero eta begirune eta aitormen handiagoz har dezan bultzatzeari.

Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoak beste erredakzio bat ematen dio Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 124.3 artikuluari, eta ezartzen du “zuzendaritza taldeko kideak eta irakasleak agintari publikotzat hartuko direla”; horrenbestez, jotzen da ezen, neurri zuzentzaileak ezartzeko prozeduretan, irakasleek egiaztatutako egitateek egiazkotasun-presuntzioa eta probabalia dutela.

Hezkuntzaren kalitatea eta bizikidetasun egoia elkarrekin estu lotutako esparruak dira, errespetatu beharrekoak, eta hezkuntza erkidegoko sektore guztien eskubideetarako funtsezko berme bat dira, eta bereziki, irakasleena, hezkuntza prozesu osoan betetzen duten funtsezko zeregina dela eta.

Lege honek irakasleen autoritatea sendotzea jasotzen du arauaren ardatzetako baten gisara, eta zenbait diziplina-tresna ezartzen ditu, bizikidetasuna nahasten duen jokabide bat gertatzen den une beretik irakasleek erabil ditzaketenak eta erabili behar dituztenak. Aldi berean, aurreikusi da neurri egokiak ezartzea bermatze aldera langile irakasleak behar bezala babesten direla eta behar bezalako laguntza juridikoa ematen zaiela.

Helburua da laguntzea irakasleek arrakastaz bete dezaten gizarteak eskatzen dien zeregin jasoak: hezkuntzarako banakako eskubidea bermatzea, ikastetxeetako bizikidetasuna hobetzea eta hezkuntzaren kalitatea handitzea. Adituzera eman beharra dago ezen irakasleek, daukaten jakintzak ematen dien autoritateaz haratago, autoritate instituzionala ere badutela, irakaskuntzaren lehentasunezko eginkizuna betetzen baitute eta, horrenbestez, hezkuntzarako konstituzio-eskubidearen berehalako bermatzaileak baitira. Helburua da berezko eginkizun publikoak zaintzea, herritarrei

ematen zaizkien zerbitzuen funtzionamendu zuzena bermatzeko aldera. Izan ere, muturreko larritasuna duten jokabide nahastaile batzuek eragin dezakete zerbitzu horietan, nola baitira erasoak. Horrela, baldin eta Konstituzioak ezartzen badu botere publikoek bermatzen dutela guztiek hezkuntzarako daukaten eskubidea, irakasleen aurkako erasoek, hitzezkoak nahiz fisikoek, hezkuntzaren eginkizuna nahasten dute.

Lege honek autoritate publikoaren izaera aitortzen die Nafarroako Foru Komunitateko irakasleei, eta horrek berarekin dakar haien txosten eta adierazpenetan egiazkotasun-presuntzioa izatea, bai eta antolamendu juridikoak aitortutako babesa ere; horrekin, izan ere, hezkuntza-sistemaren zutabe garrantzitsuenetako bat sendotzen da, irakasleena. Egungo errealitate sozialera hurbiltzen den lege bat da, konponbide eraginkorrak eman nahi dituena eta irakasleak benetan babesteko espazio berriak ireki nahi dituena. Legeak premiatzen du irakasleen figura aitortu eta indartzera, bai eta hari prestigioa ematera ere, honako lehentasunezko helburu honekin: hezkuntza-sistemaren emaitzen kalitatea handitzea eta haiek hobetzea.

Legeak hiru kapitulu, xedapen gehigarri bat eta azken xedapen bat dauzka.

## **I. KAPITULUA** **Xedapen orokorrak**

### **1. artikulua.** Xedea eta helburuak.

Foru lege honek xede du irakaslearen autoritatea aitortzea eta irakasleei, beren eginkizun eta erantzukizunetan dihardutenean, zor zaizkien aintza eta errespetua sustatzea. Horren helburua da Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeetan bizikidetasun giro egokia bultzatzea eta ikasle guztien hezkuntzarako eskubidearen baliatze erabatekoa bermatzea.

### **2. artikulua.** Aplikazio esparrua.

1. Foru lege hau aplikatuko da Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan ezarritako irakaskuntzaren bat ematen duten Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publiko eta itundu behar bezala baimenduetan.

2. Foru lege honetan ezarritakoa aplikatuko zaie irakasleek ikastetxearen barruan garatzen dituzten zereginetara, ikastetxetik kanpo eginda ere irakaskuntza-jarduerekin zuzenean lotuta daudenei, jarduera osagarriek, eskolaz kanpokoei edota irakaskuntza-eginkizunarekin zerikusia izan eta hezkuntza-komunitateko kideren batengan eragina dutenei, bai eta bestelako hezkuntza-zerbitzu batzuk ematen diren bitartean aurrera eramaten dire-

nei ere –besteak beste, eskola-garraioa edo eskola-jantokia–.

3. Foru lege honetan ezarritakoa aplikatuko zaie orobat irakaslearen izaera profesionala arrazoi duten jokabideei ere, eskola-barrutiaz kanpo gertatuta ere. .

### **3. artikulua.** Printzipio orokorrak.

Hona lege honen oinarrian dauden printzipio orokorrak:

a) Guztiok hezkuntzarako daukagun eskubidea, Espainiako Konstituzioaren 27.1 artikuluan jasota dagoena.

b) Irakasleak irakaskuntza-eginkizunaz baliatu ahal izatearen bermea, eta haien aitortzea eta babes soziala, irakaskuntzaren kalitatearen funtsezko balore gisa.

c) Irakasleak funtsezko figura gisa jotzea, ikasleek beren ahalmen eta gaitasunak ahal den guztian barneratu eta gara ditzaten, eta ezarritako helburu akademikoak eta garapen pertsonalekoak erdiets ditzaten.

d) Hezkuntza erkidegoko eta Administrazioaren kide guztien baterako erantzukizuna, ikastetxeetan bizikidetasun giro egokia lortzeko, printzipio demokratikoen esparruaren barruan, haien adierazpen guztietan jazarpen-jokabideak saihestuko dituena.

e) Ikastetxea bizikidetasunerako, elkarrekiko errespeturako eta ikasleen nortasuna garatzeko esparrutzat jotzea.

f) Aitortzea ezen, funtzionamendu egokia izateko, ikastetxeek bizikidetasun-arauak eduki behar dituztela, eta jarduketara-prozedura zehatzak, eta irakasleek haiek betetzeko behar diren bitartekoak eduki behar dituztela.

**4. artikulua.** Irakasle-eginkizuna betetzearen arloko eskubideak.

Irakasleei, beren irakaskuntza-eginkizunetan dihardutela, honako eskubide hauek aitortzen zaizkie:

a) Beren identitate, osotasun eta duintasuna errespetatuak izateko, eta ikasleek, gurasoek, senideek, legezko ordezkariak, beste irakasleek eta ikastetxean nahiz hezkuntza administrazioan lanean diharduten gainerako langileek aintzat hartuak izateko eskubidea.

b) Irakaskuntza jardueren, jarduera osagarrien eta eskolaz kanpoko jardueren garapenean zehar, beren eginkizunen esparruan beharrezkotzat jotzen dituzten erabakiak hartzeko eskubidea, bizikidetasuneko eta errespetuzko giro egokia manten-

tze aldera, irakaskuntzaren kalitaterako funtsezko faktore gisa; eta, ikasleen eskubideak —araudi indardunean ezarritakoak— errespetatuta, berehalakotasuneko, proportzionaltasuneko eta eragin-kortasunezko printzipioen arabera jarduteko eskubidea, beren eginkizunetan dihardutela.

c) Familien eta legezko ordezkarien lankidetzarako eskubidea, bizikidetasuneko arauak betetze aldera.

d) Beren irakaskuntza-eginkizunen babes juridiko egokirako eskubidea.

e) Hezkuntza Administrazioak behar diren babes eta prestakuntza emateko eskubidea, Administrazioak zaindu beharko baitu irakasleek jasotzen dituztela daukaten zereginaren garrantzi sozialari dagozkion tratua eta aintza.

## II. KAPITULUA

### Irakaslearen babes juridikoa

#### 5. artikulua. Autoritate publikoa.

Irakasleek, esleituta dauzkaten gobernu-, irakaskuntza-, hezkuntza- eta diziplina-eginkizunetan dihardutela, agintari publikoaren izaera izanen dute, eta antolamendu juridikoak izaera horri aitortzen dion babesaz gozatuko dute.

#### 6. artikulua. Egiatzotasun-presuntzioa.

Zuzentze- eta diziplina-jarduketetan dihardutela, irakasleek, egiaztatutako gertakariak direla-eta, egiatzotasun-presuntzioa edukiko dute, erregelamendu bidez ezarritako baldintzak betetzen dituen dokumentu batean idatziz jasotzen direnean; hori, halere, ez da eragozpena izanen probak adierazi edo aurkeztu ahal izateko, kasuko eskubide edo interesak defendatze aldera.

#### 7. artikulua. Laguntza eman beharra.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoko hogeita hirugarren xedapen gehigarriaren arabera, ikastetxeek familiei edo ikasleen legezko ordezkariari, edo, kasua bada, erakunde publiko eskudunei, behar den lankidetzaz eskatu ahal diete hezkuntza-eginkizunaz baliatzeko behar den informazioa eskuratzeko, bai eta ikastetxeetan bizikidetasuna bermatuko duten arauak aplikatzeko ere. Ikasleengan biltzen diren inguruabar pertsonal, familiar edo sozialei buruzko informazioari dagokionez, uneoro bermatuta egonen da intimitaterako eta datu pertsonalen babesarako eskubidea, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 13/1999 Lege Organikoan ezarritakoari jarraituz.

#### 8. artikulua. Laguntza juridikoa.

Hezkuntza-administrazioak hartu beharreko neurriak hartuko ditu ziurtatze aldera irakasle guztien babes eta laguntza juridiko egokia eta haien jardun profesionalaren ondoriozko egitateetatik eta lege honetako 2.2 artikuluan ezarritakoaren arabera betetzen dituzten eginkizunetatik heldu diren gertakarietarako erantzukizun zibilaren estaldura.

## III. KAPITULUA

### Bizikidetasuna ikastetxeetan

9. artikulua. Ikastetxeetako bizikidetasun-arauak.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoko 124. artikuluan eta Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publiko eta pribatu itunduetako ikasleen eskubide eta eginbeharrei eta ikastetxe horietako elkarbizitzari buruzko abuztuaren 23ko 47/2010 Foru Dekretuan ezarritakoari jarraituz, ikastetxe bakoitzak bere antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko arauak ezarriko ditu, horren barne direla bizikidetasun-planaren betetzea bermatuko dutenak. Arau horiek foru lege honetan ezarritakoari egokituko zaizkio, bai eta Foru Komunitateko ikastetxeetako bizikidetasuna arautzen duen esparruko erregelamenduzko xedapenetan ezarritakoari ere.

#### 10. artikulua. Delituak eta faltak jakinaraztea.

Ikastetxeko zuzendaritzak aldi berean Ministerio Fiskalari eta Hezkuntza Departamentuari jakinaraziko die eskolako bizikidetasuna dela-eta gertatutako edozein gorabehera, delitua edo falta izan daitekeena, baina hori ez da eragozpena izan behar diren kautelazko neurriak hartzeko.

#### 11. artikulua. Erantzukizuna eta erreparazioa.

1. Irakasleen aurkako eraso fisiko edo moral gisa tipifikatutako jokabideak egiten direnean, eragindako kalte moralerako erreparazioa eman beharko da, barkamena eskatuz eta egitateetan izandako erantzukizuna aitortuz, modu publikoan zein pribatuan, egitateen izaerari dagokion gisan, zuzenketak ezartzeko organo eskudunak erabakitakoari jarraituz. Hori, halere, ez da eragozpena izan legedi indardunaren arabera izan dezakeen erantzukizun zibila eskatu ahal izateko.

2. Irakasleek, banaka zein kolektiboki, nahita nahiz arduragabekeriaz, instalazioetan, ikastetxearen materialetan eta hezkuntza-erkidegoko beste kide batzuen jabetzetan eragiten dituzten kalteei konponbidea eman beharko diete, edo, bestela, beren gain hartu beharko dute haiek konpontzearen kostu ekonomikoa. Halaber, kasua

bada, lapurtutakoa itzuli beharko dute. Gurasoek edo legezko ordezkariak dagokien erantzukizun zibila hartuko dute beren gain, foru legean ezarritako terminoetan.

#### **Xedapen gehigarria**

Foru lege honek indarrean mantentzen du Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitaeaz

kanpoko ikastetxe publiko eta pribatu itunduetako ikasleen eskubide eta eginbeharrei eta ikastetxe horietako elkarbizitzari buruzko abuztuaren 23ko 47/2010 Foru Dekretua.

#### **Azken xedapena**

Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.

---

## **Foru Lege proposamena, Kontu Irekiei buruzkoa.**

### *ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 6an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2016ko ekainaren 2an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen Kontu Irekiei buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea. Proposamen hori EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeek aurkeztu eta 2016ko apirilaren 29ko 59. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Bartzarri entzun ondoren, hona

#### **ERABAKIA:**

**1.** Xedatzea Kontu Irekiei buruzko Foru Lege proposamena prozedura arruntari jarraikiz izapidetu dadin.

**2.** Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Ogasuneko eta Finantza Politikako Bartzordearen esku uztea.

**3.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost** egun balioduneko **epe bat hasiko da, 2016ko irailaren 2ko eguerdiko hamabietan bukatuko dena.** Epe horretan, Erregelamenduko 128. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2016ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza



---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **Jabeldura, Espainiako Gobernuaren behin-behinekotasunak Nafarroako Gobernuaren jarduera politikoan dituen ondorioei buruzkoa.**

### *KOLDO MARTÍNEZ URIONABARRENETXEA JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak aurkezturiko jabeldura, Espainiako Gobernuaren behin-behinekotasunak Nafarroako Gobernuaren jarduera politikoan dituen ondorioei buruzkoa.

2. Jabeldura hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **JABELDURAREN TESTUA**

Geroa Bai parlamentu-taldeko Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean eta honako zioen azalpen hau oinarri:

Estatuko indar nagusiek gobernagarritasun-akordioetara iristeko erakutsitako gaitasun ezaren ondorioz, 2015eko abenduko Hauteskunde Orokorrak izan eta urte erdira Espainian jarduneko gobernu bat dago oraindik. Horrek eragin du, besteak beste, Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoa berriz negoziatzeko zailtasuna egotea, zeinak eragin negatiboak dituen foru erkidegoaren funtsetarako, eta, halaber, sine die iraunaraztea Alderdi Popularraren aurreko gobernuak gehiago osoaren bidez onetsitako lege batzuk, gaur egun autonomia erkidego gehienek, Nafarroa barne, arbuizaten dituztenak.

Hori dela-eta, Nafarroako Gobernuari honako jabeldura hau egiten diogu:

Espainian jarduneko gobernu egoteak Nafarroako Gobernuaren jarduera politikoan sortzen dituen ondorioak.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 30ean.

Foru parlamentaria: Koldo Martínez Urionabarrenetxea

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da urgentziaz egin dezan jarduketa-plan bat, N-121-A errepideko tarte arrisku-tsuenetan bide-segurtasuna hobetzeko neurriak bilduko dituena.**

*ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita urgentziaz egin dezan jarduketa-plan bat, N-121-A errepideko tarte arrisku-tsuenetan bide-segurtasuna hobetzeko neurriak bilduko dituena.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzeko, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentariaren elkarteko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko, N-121-A errepideko tarte arrisku-tsuenetan bide-segurtasuna hobetzeko neurriak bilduko dituen jarduketa-plan bat urgentziaz egiteari buruzkoa.

N-121-A errepidea trafiko-istripu ugariaren gertalekua izan da eta izaten ari da, bai eta Nafarroako Foru Komunitateko ipar-mendebaldeko bizilagunen eta udal ordezkarien eta kolektiboen erreibindikazioen ohiko iturria ere.

Errepide hori dela-eta egin diren salaketak era askotakoak dira, eta errepide horren segurtasuna hobetzea bilatzen duten kezka ezberdinei erantzuten diete, nahiz eta helburu horrek lortzetik urrun dagoela dirudien oraindik ere.

Azken urteotan, Nafarroako Gobernuak munta handiko inbertsioak egin ditu errepide horren segurtasuna eta prestazioak hobetzeko xedez, eta iragan legegintzaldian zehar behin eta berriro azpimarratu zen helburu hori lortzera bideratutako konponbide eta neurri berriak bilatu beharra dagoela.

2015aren amaiera aldean, Foru Gobernuak iragarri zuen lanean ari dela N-121-A errepidean gerta-

tzen diren segurtasun-arazoak konpontzeko xedez errepide horretan hartu beharreko neurrien plangintza taxutzen, baina errealitatea da aurten istripuak eta arazoak bata bestearen atzetik gertatzen ari direla errepide horretako zenbait tartetan, eta beharrezkoa dela jarduketa-plan urgentziaz egitea.

N-121-A errepideko zenbait tartetan abiadura da errepide horren segurtasunean eragiten duen arazoetako bat. Abiadura-mugak drastikoki murriztu eta aldatzea tarte labur batzuetan, herrietako sarbideetan, radar finkoak eta mugikorrek daudelako, edo larrialdi-irteerarik ez edukitzeagatik segurtasun-arloko araudi europarra betetzen ez duten tuneletan.

Bestalde, errepide horrek hartzen duen trafikorekin dimentsioaren ondorioz –10.000 ibilgailutik gora egunero; horietako % 30, ibilgailu astunak–, biderkatu egiten da errepide horren arriskugarritasuna, eta arriskuan jartzen da errepidea erabiltzen dutenen segurtasuna.

N-121-A errepidean gertatutako istripu-kopuru handi horrek berekin dakar, orobat, trafikoa sarritan moztea eta Belateko mendatetik desbideratzea, zeinak, klimatologia bereziarekin eta errepidearen trazadurarekin batera, kaltetu egiten baitu trafikorekin arintasuna. Gauzak horrela, komeni da hautazko bideak bilatzea, gertakariak trafikoa desbideratzera behartzen duten kasuetarako.

Azken finean, hartzen duen trafiko handiaren-egatik eta ondorioz Nafarroaren jardura ekonomikoan daukan eraginarengatik, N-121-A errepideak garrantzi handia dauka Foru Komunitatean; hortaz, konponbideak bilatu beharra dago, denik eta segurtasunik handiena bermatze aldera, besteak beste, beren lanpostuetara joateko errepide hori egunero erabili beharra duten milaka erabiltzaileentzat.

Horregatik guztiagatik, ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du urgentziaz egin dezan jarduketa-plan bat, N-121-A errepideko tarte arrisku-tsuenetan bide-segurtasuna hobetzeko neurriak bilduko dituena.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 27an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroako irakaskuntza itunduko irakasleen eta irakasle ez diren langileen soldata % 1 igo dezan.**

### *ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Nafarroako irakaskuntza itunduko irakasleen eta irakasle ez diren langileen soldata % 1 igo dezan.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Hezkuntza Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **MOZIOAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentaldeari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 196. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Foru Komunitateko irakaskuntza itunduko irakasleek eta irakasle ez diren langileek murrizketak eta izozteak pairatu dituzte beren lansarrietan 2010az geroztik, Nafarroako Gobernuak irakasleek bezala.

2010ean eta 2012an, funtzionario publikoekiko homologazioz, beren lansariak ukitu zitzaizkien, gastu publikoa moteltze aldera Espainiako gobernuak ezarritako neurriak aplikatu baitzitzaizkien.

2016an, Gobernu zentralaren erabakiz, Estatu-ko funtzionarioen ordainsariak % 1 igo dira. Nafarroako Gobernuak beste horrenbeste egin du bere funtzionarioen kasuan, eta beste autonomia erkidego batzuek ere gauza bera egin dute beren funtzionarioekin eta irakaskuntza itunduko langileekin. Soldata-igoera hori, Nafarroako Parlamentuan aurkeztu diren ekimenak ekimen, ez da aplikatu gure erkidegoko irakaskuntza itunduan.

Nafarroako irakaskuntza itunduan ordezkartza daukaten SEPNA-FSIE, UGT, ELA eta LAB sindikatuek 2.535 sinadura aurkeztu zituzten maiatzaren 2an –sektoreko irakasleen eta irakasle ez diren langileen % 90 ordezkatzeko dituzte–, pairatzen ari diren konparaziozko bidegabekeria salatzen.

Hezkuntza Departamentuaren eta Nafarroako Gobernuaren beraren arduradunekin izandako elkarrizketek ez dute espero zen emaitzarik ekarri, eta auziak konpondu gabe jarraitzen du.

Maiatzaren 31n, sindikatu horiek agerraldia egin zuten Parlamentuko Hezkuntza Batzordean, pairatzen duten egoera eta Nafarroako Gobernuarekin izandako bilerak salatzen.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Nafarroako Foru Komunitateko irakaskuntza itunduko irakasleen eta irakasle ez diren langileen soldata % 1 igo dezan berehala, langile publikoekin egin duen bezalaxe eta Espainiako Gobernuak eta gainontzeko autonomia erkidegoek beren funtzionarioekin eta irakaskuntza itunduko irakasleekin eta irakasle ez diren langileekin egin duten bezalaxe.

Iruñean, 2016ko ekainaren 2an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

**Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere samina agertzen baitu Mohamed Abdelazziz-en heriotzagatik, eta haren familiari eta Saharako herri osoari bere elkartasuna eta estimua adierazten baitizkie.**

*ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2016ko ekainaren 6an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Bakea eta Askatasuna Saharan” taldeartekoak proposatuta eta Saharako Arabiar Errepublikako Demokratikoko lehendakari eta Fronte Polisarioko idazkari nagusiaren heriotzaren kariatara, 2016ko maiatzaren 31n gertatu baitzen, Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurak honako hau adierazten du:

Bere samina adierazten du Mohamed Abdelazziz-en heriotzagatik, eta haren familiari eta Saharako herri osoari bere elkartasuna eta estimua helarazten die une triste eta latz honetan.

Legebiltzar honetako parlamentari askok eza-gutu ahal izan zuten hura, bai eta egiaztatu ere bake-gizon eta politikari zuhur hark zer-nolako maitasunarekin eta hurbiltasunarekin tratatzen zituen erakunde honen ordezkariak, eta zer-nolako garrantzia ematen zien nafarren eta sahararren arteko adiskidetasunari eta Nafarroako Foru Komunitatetik emandako laguntza politikoari eta lankidetzari.

Parlamentu-ordezkaritzek Tindufeko errefuxiatu-kanpalekuetara egindako bidaietan, Europako hainbat tokitan EUCOCOK egindako konferentzietan, gure erkidegora egindako bisitetan, Tindufeko haren etxean bertan, beti egon da tarte bat haren agendan, gurekin une labur edo luze batzuk partekatzeke.

Bere heriotza dela-eta, Nafarroako Parlamentuak berretsi egin nahi ditu Saharako Herriaren kausaren alde onetsi dituen aldarrikapen eta adierazpen instituzional ugariak, eta adierazten du oroitzapen ezabaezin honek nafarren eta sahararren arteko lotura indartu eta estutu egingen duela etorkizunean.

Horregatik guztiagatik, eta mundu guztitik Saharako Herriari igorritako dolumin- eta estimu-adierazpenekin bat eginez, Nafarroako Parlamentuak honako adierazpen hau onesten du, eta Osoko Bilkura honetan haren omenez eta gomutaz minutu bateko isilaldia egitea proposatzen du”

Iruñean, 2016ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

## **Galdera, langabeziaren aurkako talka-planari buruzkoa.**

*AINHOA UNZU GÁRATE ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Gárate andreak aurkeztutako galdera, langabeziaren aurkako talka-planari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Eskubide Sozialetako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2016ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-talderari atxikitako Ainhoa Unzu Garate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Batzordean ahoz erantzun dezan:

Zer prestatze mailatan dago Langabeziaren aurkako talka-plana? Zer neurri zehatz jakinarazi ahal dizkigu kontseilari jaunak, plan horretan sartuak izateko asmotan direnen artetik?

Iruñean, 2016ko maiatzaren 27an

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu

---

## **Galdera, Nafarroako Foru Komunitateko enpresen eta pertsona ekin-tzaileen administrazio-zamen eta -soiltzeen urtealdi-zerrenda bat diseinatu eta prestatzeari buruzkoa.**

*AINHOA UNZU GÁRATE ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Gárate andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Foru Komunitateko enpresen eta pertsona ekin-tzaileen administrazio-zamen eta -soiltzeen urtealdi-zerrenda bat diseinatu eta prestatzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Garapen Ekonomikorako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2016ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeari atxikitako Ainhoa Unzu Garate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Batzordean ahoz erantzun dezan:

Zer pauso eman ditu Nafarroako Gobernuak Nafarroako Foru Komunitateko enpresen eta pertsona ekintzaileen administrazio-zamen eta -soiltzeen urtealdi-zerrenda bat diseinatu eta prestatzeko?

Iruñean, 2016ko maiatzaren 27an

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu

---

**Galdera, Enplegu Planari buruzkoa.*****AINHOA UNZU GÁRATE ANDREAK EGIN DU***

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Gárate andreak aurkeztutako galdera, Enplegu Planari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Eskubide Sozialetako Batzordean izapide-tzea.

Iruñean, 2016ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeari atxikitako Ainhoa Unzu Garate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Batzordean ahoz erantzun dezan:

Zer prestatze-mailatan dago Enplegu Plana?

Iruñean, 2016ko maiatzaren 27an

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu

## **Galdera, langabezian dauden pertsonen duten eskubideari buruzkoa, egoki laneratu daitezen lortzeko lanbide-orientazio pertsonalizatua jasotzekoa.**

*AINHOA UNZU GÁRATE ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Gárate andreak aurkeztutako galdera, langabezian dauden pertsonen duten eskubideari buruzkoa, egoki laneratu daitezen lortzeko lanbide-orientazio pertsonalizatua jasotzekoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Eskubide Sozialetako Batzordean izapideztea.

Iruñean, 2016ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

*NURIA MEDINA SANTOS ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nuria Medina Santos andreak aurkeztutako galdera, autonomia-mailako legeek Nafarroan desgaitasuna duten pertsonengan duten eraginaren gaineko azterlanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Eskubide Sozialetako Batzordean izapideztea.

Iruñean, 2016ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeari atxikitako Nuria Medina Santos andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Batzordean ahoz erantzun dezan:

Zer urrats egin du Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako Departamentuak autonomia-mailako legeek Nafarroan desgaitasuna duten pertsonengan duten eraginaren gaineko azterlanari begira? Zer aurrerapen edo aldaketa izan dira, legedi hori Ezgaitasuna duten pertsonen eskubidei buruzko Nazioarteko Itunera egokitzeo?

Iruñean, 2016ko maiatzaren 27an

Foru parlamentaria: Nuria Medina Santos

## **Galdera, toki entitateek 2016an langabeak kontratatzeke Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren enplegu deialdian ezarri den aurrekontuari buruzkoa.**

*MARIBEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maribel García Malo andreak aurkeztutako galdera, toki entitateek 2016an langabeak kontratatzeke Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren enplegu deialdian ezarri den aurrekontuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikia dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren enplegu deialdiari dagokionez, zeinaren helburua baita toki entitateek 2016an langabeak kontratatzea, hauxe jakin nahi dugu:

Ezarritako aurrekontua nahikoa izan al da eskaera guztiei erantzuteko? Kontusail horren kargura langabeak kontratatu nahi dituen udalen bat hori egin ezinik geratu al da aurrekontua ez iristeagatik? Hala izan bada, adierazi zein diren toki entitateak, zenbat lanpostu geratu diren sortu gabe eta zenbateko aurrekontua behar duten.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 27an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

## **Galdera, emergentzia sozialeko 2015eko laguntzei lotutako emergentzia egoeraren balorazioari buruzkoa.**

*MARIBEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maribel García Malo andreak aurkeztutako galdera, emergentzia sozialeko 2015eko laguntzei lotutako emergentzia egoeraren balorazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikia dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Emergentzia sozialeko 2015eko laguntzei dagokienez, hauxe jakin nahi dugu:

Nola baloratu dute Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek emergentzia-egoera? Diru-sarrerez gain bestelako adierazlerik ere erabili al da? Hala bada, zein? Justifikazio-txostenen kopia eskatzen da; hain zuzen, Iruñekoa, Tuterakoa, Burlatakoa, Eguesibarkoa eta Ultzamakoa.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 27an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

## **Galdera, emergentzia sozialeko 2015eko laguntzei lotutako C.3, D.1 eta E.1 azpikategorien laguntzetan sartzen diren kontzeptuei buruzkoa.**

*MARIBEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maribel García Malo andreak aurkeztutako galdera, emergentzia sozialeko 2015eko laguntzei lotutako C.3, D.1 eta E.1 azpikategorien laguntzetan sartzen diren kontzeptuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikia dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Emergentzia sozialeko 2015eko laguntzei dagokienez:

- Gutxienez ere hiru adibide eskatzen ditugu, C3 azpikategoriako laguntzetan (Funtzionamendu pertsonal integraturako behar diren elementuak eskuratzeko laguntzak. Emandako guztizko zenbatekoa, 49.564,60 euro) sartzen diren kontzeptuenak.



- Gutxienez ere hiru adibide eskatzen ditugu, D1 azpikategoriako laguntzetan (Gizarteratzeari eta/edo laneratzeari laguntzea. Emandako guztizko zenbatekoa, 96.488,42 euro) sartzen diren kontzeptuenak.

- Gutxienez ere bost adibide eskatzen ditugu, E1 azpikategoriako laguntzetan (Bestelakoak. Emandako guztizko zenbatekoa, 191.415,38 euro) sartzen diren kontzeptuenak.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 27an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

## **Galdera, emergentzia sozialeko laguntzen eskatzaileen egoera ekonomikoa egiaztatzeari buruzkoa.**

### *MARIBEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maribel García Malo andreak aurkeztutako galdera, emergentzia sozialeko laguntzen eskatzaileen egoera ekonomikoa egiaztatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikia dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Emergentzia sozialeko 2015eko laguntzei dagokienez, hauxe jakin nahi dugu:

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek emergentzia sozialeko laguntzen eskatzaileen egoera ekonomikoa egiaztatzeke dituzten zailtasunei buruzko 2015eko PES 93ri emandako erantzunaren arabera, "ez da arazorik izan eskatzaileek banku-kontuetan daukaten diruarekin". Horri buruz, hauxe jakin nahi dugu: Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek nola egiaztatu dute eskatzaileek diru-sarrerara txikiagoak dituztela lanbide arteko gutxieneko soldataren 2,5 halako baino, besterik gabe zerrenda soil bat erabilita, deialdian azaltzen den bezala? Geroago nolako egiaztapenak egiten ditu Departamentuak alderdi zehatz horri dagokionez espediente itxi ahal izateko? Zein izan da diru-sarrerara horiek konputatzeko modua? Gertatu al da inorekin, lanbide arteko gutxieneko soldataren 2,5 halako baino diru-sarrerara txikiagoak edukita, kontu korrontean duten zenbateko bat, durusarrerei gehituta edo gehitu gabe, aipatu zenbatekotik gorakoa izatea?

Iruñean, 2016ko maiatzaren 27an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

## **Galdera, emergentzia sozialeko 2015eko laguntzei dagokienez itxi eta likidatu diren espedientei buruzkoa.**

*MARIBEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maribel García Malo andreak aurkeztutako galdera, emergentzia sozialeko 2015eko laguntzei dagokienez itxi eta likidatu diren espedientei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikia dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Emergentzia sozialeko 2015eko laguntzei dagokienez, hauxe jakin nahi dugu:

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek egindako justifikazioa egiaztatu ondotik Departamentuak itxitako eta likidatutako espedienteen kopurua, itxitako espediente bakoitzari buruz adieraziz ea behar bezala justifikatu ote den % 100, ala osorik nahiz partzialki itzultzea exijitu ote den, eta egindako egiaztapenak.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 27an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

## **Galdera, emergentzia sozialeko laguntzak ebaluatzeko txostenaren 19. orrian adierazi diren datuei buruzkoa.**

*MARIBEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maribel García Malo andreak aurkeztutako galdera, emergentzia sozialeko laguntzak ebaluatzeko txostenaren 19. orrian adierazi diren datuei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikia dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Emergentzia sozialeko 2015eko laguntzei dagokienez, hauxe jakin nahi dugu:

Nondik ateratzen dira emergentzia sozialeko laguntzak ebaluatzeko txostenaren 19. orrian adierazten diren datuak, laguntzaren estalduraren gainekoak? Adierazi zein den aipatu pobrezia tasa horren datuen iturria.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 27an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

## **Galdera, emergentzia sozialeko 2015eko laguntzen onuradunak izan diren pertsonen eta familia-unitateen buruzkoa.**

*MARIBEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maribel García Malo andreak aurkeztutako galdera, emergentzia sozialeko 2015eko laguntzen onuradunak izan diren pertsonen eta familia-unitateen buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikia dagoen eta Nafarroako Gorteetako

kide den Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Emergentzia sozialeko 2015eko laguntzei dagokienez, haxe jakin nahi dugu:

Emergentzia sozialeko laguntzei buruzko ebaluazio-txostenean esaten da 3.240 familia-unitate-tako 9.604 pertsonak jaso dituztela laguntza horiek. Departamentuak ba al daki horiek guztiak pertsona eta familia-unitate ezberdinak diren? Gerta al liteke pertsona berak jaso izana emergentzia-laguntza bat baino gehiago? Baiezkoan, laguntza horiek jaso dituzten familia-unitateen kopurua –behin baino gehiagotan zenbatu gabe– zein izan den jakin nahi dugu. Departamentuak ba al daki pertsona/familia-unitate horietako zenbat diren halaber gizarteratze-errentaren jasotzaile? Baiezkoan, adieraz bedi datu hori.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 27an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

## **Galdera, babestutako enplegu sozialerako 2015eko diru-laguntzei buruzkoa.**

*MARIBEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maribel García Malo andreak aurkeztutako galdera, babestutako enplegu sozialerako 2015eko diru-laguntzei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikia dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Babestutako enplegu sozialerako 2015eko diru-laguntzei dagokienez, hauxe jakin nahi dugu: Egindako justifikazioa egiaztatu ondotik Departa-

mentuak itxitako eta likidatutako espedienteen kopurua, itxitako espediente bakoitzari buruz adieraziz ea behar bezala justifikatu ote den % 100, ala osorik nahiz partzialki itzultzea exijitu ote den. % 100 likidatu baldin bada, azkenik exekutututako zenbatekoa, emate-erabakiko zenbatekoaren aldean.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 27an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

**Galdera, Zuzeneko Enplegu Aktiborako 2015eko diru-laguntzei buruzkoa.****MARIBEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maribel García Malo andreak aurkeztutako galdera, Zuzeneko Enplegu Aktiborako 2015eko diru-laguntzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

kide den Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Zuzeneko Enplegu Aktiborako 2015eko diru-laguntzei dagokienez, hauxe jakin nahi dugu: Egindako justifikazioa egiaztatu ondotik Departamentuak itxitako eta likidatutako espedienteen kopurua, itxitako espediente bakoitzari buruz adieraziz ea behar bezala justifikatu ote den % 100, ala osorik nahiz partzialki itzultzea exijitu ote den. % 100 likidatu baldin bada, azkenik exekutututako zenbatekoa, emate-erabakiko zenbatekoaren aldean.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 27an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

**GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikia dagoen eta Nafarroako Gorteetako

## **Galdera, Toki entitateek 2016an langabeak kontratatzeko asmoz Nafarroako Enplegu Zerbitzuak egin duen enplegu-deialdiaren emaitzei buruzkoa.**

*MARIBEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maribel García Malo andreak aurkeztutako galdera, Toki entitateek 2016an langabeak kontratatzeko asmoz Nafarroako Enplegu Zerbitzuak egin duen enplegu-deialdiaren emaitzei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikia dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuak 2016an langabeak kontratatzeko eginiako enplegu-deialdiari dagokionez, horren emaitza zein izan den jakin nahi dugu:

Jada emana al dago aurrekontu osoa? Baiezkoan, onuradun suertaturiko udal guztien zerrenda eta kanpoan gelditu diren udalen zerrenda jaso nahi ditugu.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 27an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

## **Galdera, gizarteratzeko eta laneratzeko errentaren kudeaketa-sistemen hobekuntzari buruzkoa.**

*MARIBEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maribel García Malo andreak aurkeztutako galdera, gizarteratzeko eta laneratzeko errentaren kudeaketa-sistemen hobekuntzari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikia dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Gizarteratzeko eta laneratzeko errentari buruzko 2015eko PES 70 galderari erantzunez, adierazi da errebisatu eta hobetu egingen direla kudeaketa-sistemak, administrazio-sinpletze handiagoa lortzeko.

Zer egin da arlo horretan?

Erantzunean aipatutako lantaldeek nola funtzionatu dute? Bilera-akten kopia, baldin eta bilera-rik egin bada.

Esaten denez, Errealitate Sozialaren Behatokiak aurretiazko azterlan bat egin behar zuen, ekin

nahi zaion gizarteratze-errentaren erreformari buruzkoa. Azterlan horren kopia jaso nahi dugu.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 27an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

## **Galdera, Ezgaitasunaren Arreta Integralerako Las Hayas zentroari buruzkoa.**

### *MARIBEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maribel García Malo andreak aurkeztutako galdera, Ezgaitasunaren Arreta Integralerako Las Hayas zentroari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikia dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Maribel García Malo andreak, Legebil-

tzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Departamentuak gogoan al darabil berrantolamenduren bat egitea Ezgaitasunaren Arreta Integralerako Las Hayas zentroan, beste jarduketa batzuen artean ekarriko duena zentro horretako egoiliarak beste batzuetara eramatea, esaterako Erronkari Ibarra zentrora? Baiezkoan, Departamentuak ezarritako berrantolamendu-planaren kopia jaso nahi dugu.

Erabiltzaileen balizko lekualdatzeak aztertzen ari baldin bada, jakin nahi dugu zenbat erabiltzaile eraginen dion neurri horrek, lekualdatze horiek zer irizpiderekin egingen liratekeen, zer txosten tekniko eta medikotan oinarrituko den irizpide horien betetzea, eta ea lekualdatze horiek erabiltzaileen familien oniritziarekin egingen diren ala departamentuak inposatuta egingen diren.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 27an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

## **Galdera, “Enplegu plana. Prestakuntzako eta enpleguko 2015eko programa mistoak” izeneko kontusailaren aurrekontuaren betetze-mailari buruzkoa.**

*MARIBEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maribel García Malo andreak aurkeztutako galdera, “Enplegu plana. Prestakuntzako eta enpleguko 2015eko programa mistoak” izeneko kontusailaren aurrekontuaren betetze-mailari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikia dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Enplegurako lantegi-eskolari buruzko PES 84 galderari erantzunez, parlamentari honi jakinarazi diote ezen, “Enplegu plana. Prestakuntzako eta enpleguko programa mistoak” izeneko 2015eko kontusailak 3.888.216 euroko aurrekontua badu ere, 3.204.945,97 euro baino ez dela bete. • Zeintzuk dira hain gutxi betetzearen arrazoiak?

Iruñean, 2016ko maiatzaren 27an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

## **Galdera, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren eta eragile sozialen eta GKE-en arteko hitzarmenen kudeaketan helburu eta ildo estrategikoak ezartzeari buruzkoa.**

*MARIBEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maribel García Malo andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren eta eragile sozialen eta GKE-en arteko hitzarmenen kudeaketan helburu eta ildo estrategikoak ezartzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikia dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Nafarroako Gobernuak, Nafar Lansare-NEZen estatutu berrien onespenerekin batera ateratako prentsa-oharrean, adierazi zuen eragile sozialekiko eta GKE-ekiko hitzarmenak kudeatzeko eredu berri bat ezarriko zela, Nafarroako Gobernuari eta NEZeko teknikariei protagonismo handiagoa emanen ziena.

Prentsa-ohararen arabera, une horretatik aurrera, hitzarmenen lehentasunak eta helburuak NEZeko teknikariek ezarriko zituzten, eta egindako programetako erabiltzaileak bidaliko ziren enplegu agentzietatik, hitzarmenen bidez. Legegintzaldia hasi eta hamar hilabete iraganda, honako hau jakin nahi dugu:

Ez al da egia jadanik aurreko legegintzaldian NEZeko teknikariek eta zerbitzuek finkatzen zituztela helburu eta ildo estrategikoak?

Iruñean, 2016ko maiatzaren 27an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

---

## **Galdera, enplegu agentziek hitzarmenen bidez egiten diren programetako parte-hartzaileak hautatzeari eta bideratzeari buruzkoa.**

**MARIBEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maribel García Malo andreak aurkeztutako galdera, enplegu agentziek hitzarmenen bidez egiten diren programetako parte-hartzaileak hautatzeari eta bideratzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikia dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Maribel García Malo andreak, Legebil-

tzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Nafarroako Gobernuak, Nafar Lansare-NEZen estatutu berrien onespenerekin batera ateratako prentsa-oharrean, adierazi zuen eragile sozialekiko eta GKE-ekiko hitzarmenak kudeatzeko eredu berri bat ezarriko zela, Nafarroako Gobernuari eta NEZeko teknikariei protagonismo handiagoa emanen ziena. Prentsa-ohararen arabera, une horretatik aurrera, hitzarmenen lehentasunak eta helburuak NEZeko teknikariek ezarriko zituzten, eta egindako programetako erabiltzaileak bidaliko ziren enplegu agentzietatik, hitzarmenen bidez. Legegintzaldia hasi eta hamar hilabete iraganda, honako hau jakin nahi dugu:

Ez al da egia jadanik aurreko legegintzaldian programetako parte-hartzaileen hautaketa eta bidalketa enplegu-agentzietatik egiten zela, neurririk handiengan?

Iruñean, 2016ko maiatzaren 27an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo



## **Galdera, eragile sozialekiko eta GKE-ekiko hitzarmenen kudeaketa-eredua ezartzeko hartu diren neurri zehatzei buruzkoa.**

*MARIBEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maribel García Malo andreak aurkeztutako galdera, eragile sozialekiko eta GKE-ekiko hitzarmenen kudeaketa-eredua ezartzeko hartu diren neurri zehatzei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikia dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Maribel García Malo andreak, Legebil-

tzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Nafarroako Gobernuak, Nafar Lansare-NEZen estatutu berrien onespenearekin batera ateratako prentsa-oharrean, adierazi zuen eragile sozialekiko eta GKE-ekiko hitzarmenak kudeatzeko eredu berri bat ezarriko zela, Nafarroako Gobernuari eta NEZeko teknikariei protagonismo handiagoa eman ziena. Prentsa-oharraren arabera, une horretatik aurrera, hitzarmenen lehenetsunak eta helburuak NEZeko teknikariek ezarriko zituzten, eta egindako programetako erabiltzaileak bidaliko ziren enplegu agentzietatik, hitzarmenen bidez. Legegintzaldia hasi eta hamar hilabete iraganda, honako hau jakin nahi dugu:

-Zer neurri zehatz hartu dira kudeaketa-eredu hori ezartzeko? Adierazi neurri horiek hartzeko erabakiaren data eta horretarako modua.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 27an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

## **Galdera, Gazteen Bermearen 2015eko Sistemari inskribatuta dauden gazte langabeak kontratatzeke tokiko entitateentzako laguntzei buruzkoa.**

*MARIBEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maribel García Malo andreak aurkeztutako galdera, Gazteen Bermearen 2015eko Sistemari inskribatuta dauden gazte langabeak kontratatzeke tokiko entitateentzako laguntzei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikia dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Gazteen bermearen 2015eko sisteman inskribatuta dauden gazte langabeak kontratatze aldera toki entitateei bideraturiko laguntzei dagokienez, hauxe jakin nahi dugu: Toki entitateek egindako

justifikazioa egiaztatu ondotik Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuak itxitako eta likidatutako espedienteen kopurua, itxitako espediente bakoitzari buruz adieraziz ea behar bezala justifikatu ote den % 100, ala osorik nahiz partzialki itzultzea exijitu ote den. Baldin eta % 100 likidatu bada, azkenik exekutututako zenbatekoa, ematea erabakitako zenbatekoaren aldean.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 27an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

---

## **Galdera, Iruñeko katedraleko klaustroa zaharberritzeko sinatu den hitzarmenari buruzkoa.**

**ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztutako galdera, Iruñeko katedraleko klaustroa zaharberritzeko sinatu den hitzarmenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu–Nafarroa parlamentu-taldearen ele-dun Adolfo Araiz Flamarique jaunak, Erregelamenduko 189. artikuluan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

Gaurko egunez jakin da Foru Komunitateak, Iruñeko eta Tuterako Artzapezpikutzak, La Caixa banku-fundazioak eta Nafarroako Kutxa fundazioak hitzarmen bat sinatu dutela Iruñeko katedraleko klaustroa zaharberritzeko.

Hitzarmen horren arabera, Foru Komunitateak hurrengo urteotan 1.254.000 euro jarriko ditu, gutzira, bere aurrekontuetatik.

Iruñeko katedralean hainbat zaharberritze-obratan erakunde publikoek jarritako hainbat milioi euro jada inbertitu diren arren, Artzapezpikutzak erabaki zuen 5 euro kobratzea monumentua bisitatu ahal izateko.

Eliza Katolikoak Jabetza Erregistroan 2007ko urtarrilaren 23tik bere izenean immatrikulatutako jabetza bat zaharberritzeko funts publikoak jartzeko konpromiso berri hau ikusita, honako hau galdetzen da:

– Hitzarmenean akordiorik jasotzen al da, klaustroa zaharberritzeko obrak bukatutakoan bertara sartzeko doakoa izan dadin?

– Ezezkoan, Nafarroako Gobernuak asmotan al du jarduketarik, klaustroa zaharberritzeko obrak bukatutakoan –eta kontuan izanda zenbat diru publiko inbertitu den katedralean– Artzapezpikutzak monumentu hori bisitatu ahal izateko sarrera kobratzeari utz diezaion?

– Eliza Katolikoak immatrikulatu eta zaharberritze-obretan funts publikoak inbertitu diren zenbat eliza edo monumentutan kobratzen da bertara sartu ahal izateko, Nafarroako Gobernuak dakie-la?

Iruñean, 2016ko maiatzaren 31n

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

## **Galdera, jakitekoa ea zertan den Eliza Katolikoak eginiko immatrikulazioak direla-eta Parlamentuko Osoko Bilkurak onetsitako erabakiaren betetzea.**

*LAURA PÉREZ RUANO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Pérez Ruano andreak aurkeztutako galdera, jakitekoa ea zertan den Eliza Katolikoak eginiko immatrikulazioak direla-eta Parlamentuko Osoko Bilkurak onetsitako erabakiaren betetzea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Laura Pérez Ruano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

Nafarroako Parlamentuak, 2016ko apirilaren 7an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen, 2016ko apirilaren 14ko 52. Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialaren arabera: "Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Justizia Ministerioaren aldetik jaso ditzan Eliza Katolikoak Nafarroan 1946tik gaur egun arte egin dituen immatrikulazio guztiak". Zerbateraino bete da Eliza Katolikoak eginiko immatrikulazioak direla-eta Nafarroako Gobernua Legebiltzarreko Osoko Bilkurak onetsitako erabakiak bete ditzan premiatzen duen erabaki horren 2. puntua?

Iruñean, 2016ko ekainaren 1ean

Foru parlamentaria: Laura Pérez Ruano

**Galdera, “410001 41800 6020 325100 - Ikastetxe berrien eraikuntza”,  
“410001 41800 7609 325103 - Ikastetxe berrien eraikuntza” eta  
“4110001 41210 4812 322304 - Prestakuntza Planerako Laguntzak”  
kontusailei buruzkoa.**

*ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, “410001 41800 6020 325100 - Ikastetxe berrien eraikuntza”, “410001 41800 7609 325103 - Ikastetxe berrien eraikuntza” eta “4110001 41210 4812 322304 - Prestakuntza Planerako Laguntzak” kontusailei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentaldeari atxikia dagoen eta Nafarroako Gorteetako

kide den Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, idatziz erantzun dakizkion:

– Nafarroako Gobernuak honako kontusail hauek blokeatu al ditu?

410001 41800 6020 325100 Ikastetxe berrien eraikuntza, 2.767.688,00 euroko hasierako kreditua duena.

410001 41800 7609 325103 Ikastetxe berrien eraikuntza, 4.710.529,00 euroko hasierako kreditua duena.

4110001 41210 4812 322304 Prestakuntza Planerako Laguntzak, 385.750,00 euroko hasierako kreditua duena.

– Zer gastu daude jada konprometituta eta zer jarduketa egingen dira zenbateko horiekin?

– Zer diru-kopuru blokeatu dira? Zer jarduketari eragin diete? Zer zenbatekotan?

Corellan, 2016ko ekainaren 1ean

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera